



Kristina FERNANDEZ

Parra egin

Aitziber LEKUONA

Larunbata, itzelezko mozkorra gainean. Aste osoan lan egin ondoren nekaturta nago, fisikoki indargabetuta eta psikikoki nazkatuta. Errutinatik aterako nauen vodka-limoia esku batean, ingurura begira nabil, nire edabe magikoa lurrera botako duen mozkorren bat ba ote dabilen aztertuz. Garestiegi daude konbinatuak horrelako amaiera bat emateko. Nire herrian behintzat. Sakelatik telefonoa atera dut; ahaztu egin zait jaso berri dudan mezuan esan didazuna. Ea beste behin. Mensajes; *Bandeja de entrada*: PARRA EGIN DUT MATTIA. IRABAZITA NEUKAN PARTIDA, BAINA PARRA EGIN DUT.ONDO PASA. MUXU. Orduan konturatu naiz. Pentsatu dut, alderantziz izango balitz, mezua oso bestelakoa izango litzatekeela. Ni izango banintz arratsaldean xake txapelketan parte hartu zuena. Mensajes; *bandeja de salida*: GALDU DUT MATTIA. IRABAZITA NEUKAN PARTIDA, BAINA GALDU DUT.ONDO PASA.MUXU. Edo antzeko zerbait.

Bat-batean nire burua ez dago leku hartan. Errutinatik atera nahi duten mozkorrez betetako tabernatik ihes egin du nire gogoak. Eta nire buruarekin haserretu naiz. Galtzaile deitu nauelako haserretu naiz.

-Ez naiz galtzailea, gauzak bukaeraraino bixitzea gustatzen zait; besterik ez. Erantzun diot nire pepito grillo zeri ho-

rri. Zalantzas betetako baieztapena izan da. Saiatu naiz disimulatzen baina... nola engainatu nire burua? Partxisean bakarrik jokatu eta tranpak zeuri egitea bezalako zerbait da, nabarmen geratzen zara, biluzik ispiluaurrean.

-Inoiz ez zara damutu egindako zerbait ez? Gauzak bi aldiz pentsatu gabe egin izanaz?

-Baliteke, bai, askotan. Baina beti pentsatzen dut gehiago damutuko nintzatekeela parra egin izan banu. Parra egiten duenak ez du bukaeraraino jokutzen. Inoiz ez du jakingo zer gertatuko litzatekeen jarraitu izan balu.

-Seguru zaude jakin-minarekin geratu baino, aukeran hobia dela partida galtzea?

-Ez da hobia izango, ez zuzenena behintzat. Baina ezin dut ekidin. Odol berokoa naiz, hiperaktiboa, erabaki azkarrakoa... txoriburu nahi baduzu. Baina horrelako naiz. Eta horrela behar dut jokatu. Badakit, seguru nago, jokoan parra egingo banu beti, ito egingo nintzatekeela; ez nintzela ni izango; hil egingo nintzatekeela barrutik; bizipoza galduta, egin beharrekoa egingo banu beti.

-Ei! Esnatu! Jaitsi mundura neska! A ze nolako itsua daramazun! Nahi duzu beste porro bat egitea? Bota dit koadrilako lagun batek.

-Ke ba, ke ba...nahikoa dut gainean daramadanarekin.

Lagunari begiratu diot segundo batzuez. Nire buruarekin izan berri dudan elkarrizketa kontatzeko izugarritzko go-

goa sartu zait, nire izateko moduz zer pentsatzen duen galdetzeko. Ez, hobe ezetz, ez da leku aproposena; ezta ordua ere. Bueno, batzuetan nire burua kontrolatzeko gaitasuna dudala behintzat erakutsi dut, pixka bat bada ere.

Taberna ixtera doaz eta aukera bakarra geratzen da: herriko diskoteka. Ez nago hango panorama agoantatzeko. Mozkor klase desberdinak izan ditzaket, eta gaurkoa ez da diskotekara joateko modukoa. Filosofikoegi nago *antro* horretan sartzeko: gonatztat gerriko baten tamainako oihala erabiltzen duten nerabeak –zahartzen hasia nago–, guztiak komunetan pilatuta, denak ispilu aurrean, rimel-kolorete-begietako arkatxak eta gainontzekoak beste ukitu bat behar ote duten kontrolatuz; eta mutilak –asko nesken trikimailuekin sorginduta. Egongo dira hori baino zerbait gehiago bilatzen dutenak, jatorra izatea eta antzeko txorakeriak; edo mutilak bilatzen dituzten mutilak; baina, normalean, lehenengo taldekoak izaten dira nagusi diskoteka honetan. Ez, gaur ez nago hara joateko, *karka* baten modura, gure gizarte hutsal honen inguruan gogoetan hasiko nintzateke, gaizki sentitzeraino guxtienez; eta ez, ez nago hara joateko.

Autobus paradan zain: kristoren hotza. Azken porroa egiteko erabakia hartu dut. Kaka. Ez daukat ezer. Papera-tabakoa-marihuana-metxeroa tabernako barran utzi ditut nonbait. Nire poltsan, behintzat, ez daude. Hala beharko du: horretan ere sinesten dut, gauzak arra-

zoiren batengatik gertatzen direla, alegia; horregatik ahaztu zaidala marihuana, zerbaitegatik ez nuelako porro hori erre behar. Ez dakit zein dagoen guztia kontrolatzen, baina zerbait badagoela sinesten hasia nago. Sinesten hasia nago, aldi berean, txoriburu samarra naitzela. *En fin*.

Azkenean: autobusa. Mozkorra zaude nean, bakarrik, hotzez, eta etxera iristeko gogoarekin, denborak beste dinamika bat eramaten du. Mozkorren kalterako, beti. Plastikozko eserlekutik kanpora begira, ez dut ezer interesgarri ikusten. Baina okerragoa da barruko panorama. Bitartean, ohean imajinatzen zaitut. La-sai, bero, goxo. Eta ni, tabako eta alkoholezko lurrin kirasdunaz blai. Ez da justua zurekin oheratzea. Sofan lo egin nezake beharbada. Baina ez dut egingo, badakit. Gelara isilka sartu –niri behintzat hala iruditu zait– eta zugana jo dut zuzenean. Ohiko «gabon mattia» horren orde, muxu bat. Beroa, oso. Zurekin jolastu nahi dut. Partida bat botako dugu? Ohe ondoko lanpara txikia piztu dut. Ikusi nahi zaitut. Begietara begiratu eta hitzik esan gabe bota dizut: xake! Oraingoan ez dugu parra egingo. Bukaeraraino iritsiko gara...

XAKE MATE

Aitziber Lekuona 1983ko urtarrilaren 20an jaio zen. Historian lizentziaduna da eta iraganarekin erlaziozko lanen bat argitaratzeko aukera ere izan du.